

**Kooperatiba eta WWF 2004tik ari dira elkarrekin lanean**

## **AURTEN ERE, EROSKIK PARTE HARTUKO DU WWF-K SUSTATZEN DUEN "PLANETAREN ORDUA" KANPAINAN**

- **Datorren larunbatean, EROSKIk bat egingo du ingurumenaren alde munduan egiten den itzalaldi sinbolikorik handienarekin; aurten, "Eman ordubete planetari" leloa izango du**
- **EROSKIk eta WWFk aspalditik dihardute elkarlanean ingurumen politikak sustatzeko: arrantzategi jasangarrien alde, efizientzia energetikoa hobetzeko eta kontsumo arduratsua bultzatzeko**

**Elorrion, 2024ko martxoaren 22an.-** [EROSKIk](#) bat egingo du hamahirugarren urtez jarraian "[Planetaren Ordua](#)" kanpainarekin. [WWFk](#) antolatzen du, Nazio Batuen Erakundearen babesarekin. EROSKIk itzalaldi sinboliko bat egingo du bere [www.consumer.es/eu](http://www.consumer.es/eu) webgunean: martxan jarraituko du, baina argi apalagoa izango du, indar txikiagokoa. Gainera, egitasmoaren berri zabalduko du webgunean eta sare sozialetan, eta saltoki batzuetan errotuluak itzaliko dituzte. Bihar, martxoaren 23an, larunbatez, mundu osoko milioika lagunek argia itzaliko dute ordubetez (20:30etik 21:30era bitartean), mundua kontzientziatzeko ingurumena eta klima aldaketaren aurkako borroka zer garrantzitsuak diren.

"Eman ordubete planetari" izango da aurtengo leloa. Planetaren aldeko lasterketa bat da, klima aldaketaren eta natura suntsitzearen aurka borrokatzeko. Urtero egiten da ekintza hau, eta horri esker, herritarrek, enpresek, udaletxeek, instituzioek eta mota guztietako erakundeek bat egiten dute klima aldaketaren eta biodibertsitatea galtzearen aurka borrokatzeko.

*"Aurten ere, EROSKIk bat egingo du WWFren egitasmo honekin: orain artean, ingurumenaren alde sentsibilizatzeko egiten den ekintza globalik handiena da, eta klima aldaketaren arazoa azpimarratzeko sinbolo bat. Kontsumitzaileak gero eta*

---

### **EROSKI**

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria  
PATRICIA MARTIN SANCHIDRIAN

Tel: 946 211 214

[comunicacion@eroski.es](mailto:comunicacion@eroski.es)

### **EROSKI – PRENTSA BULEGOA CONSEJEROS DEL NORTE**

JOANA G. LANDAZABAL  
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)

*zorrotzagoak dira jasangarritasun irizpideei dagokienez, eta EROSKI lanean ari gara kontsumo arduratsuaren aldeko eskakizun horiek betetzeko”, adierazi du Alejandro Martinez Berriochoa EROSKIko Osasun eta Jasangarritasun zuzendariak.*

## **Klima aldaketaren aurkako borrokarekin dugun konpromisoa**

Klima krisiaren ondorioz, klima hondatzen ari da, habitatak galtzen ari dira eta basoak gain behera doaz, eta gainera, energiaren prezioa oso handia da gaur egun. 2023a historiako urterik beroena izan da datuak erregistratzen direnetik. Munduko tenperatura berotu izanaren ondorioz, muturreko fenomeno meteorologikoak ugartu egin dira: uholdeak, bero boladak eta sute handiak gero eta maizago izaten dira.

Hori dela eta, EROSKI gero eta ahalegin handiago egiten du jasangarritasunari dagokionez, eta kooperatibaren helburu garrantzitsuenetako bat 2050erako berotegi efektuko gasik batere ez isurtzea da. Europar Batasunak *Jokabide kode bat du elikagaiekin egiten diren negozioak eta marketin praktikak arduratsuak izan daitezen*, eta horren barruan sartzen da EROSKIren erronka hori.

EROSKI bi Lean & Green izar eskuratu ditu azken lau urteetan %30 murrizteagatik logistika eta garraio prozesuetan isurtzen duen CO2 kantitatea. EROSKI %40 baino gehiago murriztu ditu 1. eta 2. irismena duten berotegi efektuko gasen isuriak 2017tik; produktu ekologiko gehiago merkaturatu ditu, 1.400 baino gehiago dira dagoeneko; animalien ongizatearen zigilua jarri die bere haragi zuri guztiei; are gehiago murriztu du plastikoa, eta ontzi birziklagarriagoak erabiltzen ditu: 180 ontzi baino gehiago ekodiseinatu ditu.

Duela bi urte, EROSKI [Planet Score](#) ingurumen etiketa berria erabiltzen hasi zen, eta lehen banaketa enpresa izan zen hori egiten. Iaztik aurrera, EROSKI dendetako elikadura eta produktu freskoen arloetako 30 produktu inguruk dute etiketa hori.

Horrez gain, joan den urtean Leed Gold ziurtagiria eman zioten EROSKIri Gasteizko Lakua-Arraigako denda jasangarriagatik: zigilu horrek ziurtatzen du eraikina

---

### **EROSKI**

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria  
PATRICIA MARTIN SANCHIDRIAN

Tel: 946 211 214

[comunicacion@eroski.es](mailto:comunicacion@eroski.es)

### **EROSKI – PRENTSA BULEGOA**

#### **CONSEJEROS DEL NORTE**

JOANA G. LANDAZABAL  
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)

jasangarria dela eta ekoefizientzia irizpideen arabera eraikia dela. Sare komertzial osoan duen supermerkatuak jasangarriena da hori, eta energia eredu berri bat ezarri du kooperatibaren dendetarako.

### **15 urte baino gehiago elkarlanean**

EROSKI eta WWF hainbat egitasmotan aritzen dira lankidetzan duela 15 urte baino gehiagotik, hainbat ingurumen politika garatzeko: arrantzalekuak modu jasangarrian ustiatzeko, efizientzia energetikoa hobetzeko, kontsumo arduratsua bultzatzeko, arrantza jasangarria sustatzeko eta praktika jasangarri egokiekin egindako EROSKI markako produktuak merkaturatzeko, besteak beste. WWF lankidetzan aritzen da [www.consumer.es/eu](http://www.consumer.es/eu) aldizkariarekin ere: ingurumenari buruzko edukia argitaratzen du bere kanalean. Gainera, babesa ematen dio kooperatibaren [Ekilibria](#) programari, elikadura osasungarriari buruzkoa.

Bestalde, [EROSKiren Elikadura Eskolak](#) Elikadura eta Ohitura Osasungarrei buruzko Heziketa Programa bat antolatzen du Espainia osoko ikastetxeekin elkarlanean, eta WWFk eduki pedagogikoak sortzen ditu jasangarritasunaren inguruko modulu espezifiko baterako.

---

#### **EROSKI**

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria  
PATRICIA MARTIN SANCHIDRIAN

Tel: 946 211 214

[comunicacion@eroski.es](mailto:comunicacion@eroski.es)

#### **EROSKI – PRENTSA BULEGOA CONSEJEROS DEL NORTE**

JOANA G. LANDAZABAL  
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)